



1. Linboan (Pello Lizarralde-Toño Muro) 3'38"

Han, idioten herrian
Bertan, ergelen batzarrean
Aho zabalik daude denak,
Adurra ezpainetik daniela.

Denak puntu bati begira, liluratuta
Leloak eta inozoak,
Memeloak eta besteak eta besteak.

Oh!, ze goxo egoten den
Goian, kotoiezko zeruan
Argi zurian murgilduta
Kanpai soinuaren airean.

Dilin-dalan belarriak, dilin-dalan,
Ñir-ñir daude haien begiak,
Taupa-taupa bihotzak, taupa-taupa
Linboan, linboan.

Ez pentsa, ez da hain zaila
Hodei ertzeaz bestalde
Dohain ta gainera debalde,
Etzazu berriz galde.

Hantxe daukat atsedena, sosegua
Hodei batean eserita,
lerdoa naiz oihuka, lerdoa naiz.

Linboan, linboan

2. Egiozu kasu (Toño Muro) 3'49"

Bizitza hasten denean umetan ezin libre izan.
Ematen garen heinean, gogoari erantzuna, hara:

Haur txikia, amari egiozu kasu,
Haur maitea, aitari egiozu kasu.

Exetik ateratzean askeago sentitzen gara.
Ingurukoen ahotan errepikatzen dena, hara:

Neskatila, maisuari egiozu kasu,
Oi, mutila, koadrilari egiozu kasu.

Helduak garenean askatzen omen gaitu lanak.
Eginbeharrekoen aurrean entzundako agindua, hara:

Langilea, nagusiari egiozu kasu,
Morroi hori, bezeroari egiozu kasu.

Bizitza amaitu baino lehen jubilatu eta lanik ez!
Askatasunaren orde ez guztien aholkua, hara:

Amonatxo, alabari egiozu kasu,
Agure zaharra, zaintzaileari egiozu kasu.



3. Guduka (Toño Muro) 2'38"

Beltzak eta txuriak,
Turkoak eta kristauak,
Borroken errituala
Pastoraletan bezala.

Gora gu ta gutarrak, baita ere biba zuek!

Ezari dira mugak,
Banatuta daude armak,
Jantzien koloretan
Datza borrokaren funtsa.

Ez dira makurtuko etsaia makurtu arte.

Agramont ta Beaumont,
Napoleon eta Wellington,
Godzilla eta King-Kong,
Saddam Hussein eta Clinton.

Elkarren aurkariak nor baino nor daude tinko.



4. Bertan goxo (Toño Muro) 3'39"

Isaki guztiek hitzegiten
Zekiten garai zahar haietan
Ardi batzuk bazkanik jan gabe
Itzultzen omen ziren menditik.
Zergatiaz galdetu artzainak
Eta hau zen ardien erantzuna:

"Belar aldera makurtzen garenean
Belarrak esaten du: aurrerago ta goxoago"

Ardiak tuntunak diren ezkerro
Artzainak aholkua eman zien:
"Aurrerago eta goxoago
Esaten dizuetenean,
Zuek erantzun 'bertan goxo'
Eta hasi jaten bertan"

Honezkero ardiek be egitean
Belarrari diote: "bertan goxo"
Bertan goxo.



5. Ez dut jakin nahi (Toño Muro) 4'28"

Ez dut jakin nahi zertan zauden azken aldi hontan,
Ez dut ulertzen zergatikan zauden nire aurka,
Elkar ezagutu genueneko egunetan
Lagun artekoa baitzen harreman gurea.

Denbora igarota dena zapuztu zen
Elkari mokoka hasi ginen.

Ez dut jakin nahi non zabilizan azken aldi hontan,
Ez dut zurekin topo egin nahi inongo lekutan,
Ez nenkike nora begiratu ezta non sartu
Ezustean elkartuko bagina.

Nitaz gaizki esaka aritzen bazara
Nire iritzia antzekoa da.

Ez dugu jakin nola konpondu gure artekoa,
Nork bereari eutsi dio lehia izkutan.
Gazteagoa zinelako irekia izan behar,
Zaharragoa nintzelako ulertu behar zintudan.
Gateagoa zinelako,
Zaharragoa nintzelako.

6. Ezkabapean (Toño Muro) 3'47"

Gerra garaian Ezkaba gainean
Presondegi izugarria egon zen.
Ondoren, gaztetxo nintzela
Solilik soldadu talde bat zegoen.
Etxe asko eraiki zituzten
Herri txikitari, Ezkabapean,
Auzo berritan, Ezkabapean.

Ezkabapean, mina eta poza neure bihotzean.

Mutur batean eroetxea,
Bestean, beriz, tren geltokia
Lanarekin etsitzen ez zena
Aise hiritik kanporatzeko
Ala ziegari sartzeko.


Ezkabapean, mina eta poza neure bihotzean.

Koartelak hirigunetik aparte
Eraiki behar omen zirela,
Ezkabapean kokatu zituzten
Eta orain espetxe berria
Baietz asmatu non jarriko!

Antsoain, Txantrea, Berriobeiti, Berriozar,
Errotxapea, Atarrabia, Sanduzelai,
Ainzoain, Artika, Buztintxuri, Errotazar...
Ezkabapean, Ezkabapean!

Ezkabapean, mina eta poza neure bihotzean.





7. Nor da beste aldean? (Toño Muro) 3'14"

Nor da beste aldean?
 Nola duzu izena?
 Garbiago hitz egin,
 Horrela ezin baitut piperrik ulertu.
 Euskalduna al zara?
 En qué idioma hablas?
 Zentzuzko zeozer
 Ez baduzu esaten etengo dut laister.
 Telefonoaren beste aldean
 Ezin ulertuzko xuxurlak
 Telefonoaren alde honetan
 Susmoak eta beldurrak.

Zu... nor ote zara?
 Laguna ala etsaia?
 Polizi forala,
 Ala nazionala? Edo udaltzaina?
 Txantxetan ari zara
 Ala propagandan?
 Nire zenbakia
 Non duzu lortua, nork dizu emana?
 Telefonoaren beste aldean
 Ezin ulertuzko xuxurlak
 Telefonoaren alde honetan
 Susmoak eta beldurrak.

8. Hegoak (In Dylan imitatione) (Pello Lizarraide-Toño Muro) 3'20"

Asko dira hegoa ikusi gabe hil direnak.
 Iparreko eremuetan beltza eta emankorra da lurra
 Eta pago hezearen usaina dute bertakoek ametsek.
 Ohianaren sabeletik datorkie indar iluna,
 Haranaren zerutik oihu amaitezina,
 Hegoko lautadaren ertzetik desosegu aspaldikoa.
 Ez dute inoiz ahantziko lehen bisitaria.
 Lautada errearen kolorekoak ziren haren jantziak
 Eta espezie haziak zituen oinetakoei atxekita.

Doinu kizkurreko hitzak atera zituen
 Galdetzeko eta erantzuteko orduan,
 Hegoko lautadaren ertzetik desosegu aspaldikoa.
 Asko eta asko hilko dira hegoa ikusi gabe.
 Haratago bada zerbait, sukarra eta ametsa bezalakoa:
 Haratago bada zerbait, ke eta hauts trinkoen gisakoa.
 Ez dute begi ernea engainatuko, ordea,
 Ipar guztiek dute eta bere hegoa,
 Iparreko basoaren ertzetik desosegu aspaldikoa.



9. Argia piztuta gogoan (Toño Muro) 3'46"

Atzo arratsaldean ez nintzen gaur naizena,
Ordu gubxi hauetan erotik aldatu da dena
Gaueko ametsetan esna nengoenean
Hatz erraldi batek zuzen seinatu nau eta

Argia piztu zait gogoan.

Deikundea jaso ta biziberriturikan,
Jeikitzerakoan hau poza bihotzean!

Aurreko zalantzak egia bihurtuta,
Duda-muden ordeztu sistema osatuta,

Argia piztuta gogoan

Kulparik ez, damurik ez,
Hemendik aurrera.

Lagun gubxi, etsai aunitz:

Pikutara mundu osoan zehar
Nire ideiekin bat ez datozenak!

Bihar goizaldean ez zara gaurkoa izanen
Hatz erraldi batek seinatzen bazaitu, eta

Argia piztuko zaizu gogoan



10. Iruñean rokanrolik ez (Toño Muro) 4'46"

Iruñeko rokzaleek
Ezin izan dute jasan,
Hiriak eskaini ez diena
Kanpoan bilatu behar.

Errepideetan zehar erromes berriak dira.

Lauzpabost lagun elkartu
Auto batean badoaz,
Arratsaldean abiatuta,
Ordu txikietan buelta.

Bidean kontrola izanda aitortuko zuten batera:
Iruñean rokanrolik ez

Garesen, Lakuntzan, Altsasun
Aurkitu zuten zer entzun;
Bergaran, Gasteizen baita Sosen ere
Gogotik gozatu dute.

Errepidetan zehar erromes berriak dira

Gero ta umutirago doaz:
Zaragoza, Bilboraino...
Bidean jarraituko dute
Bizitza galdu artio.

Berriro kontrola izanda aitortuko dute batera:
Iruñean rokanrolik ez